

"Oporren" buelta

Aste santuko oporrak bukatu dira eta berriro lanean jartzeko garaia iritsi da.

Zer moduz bi aste hauetan? Badakit ez direla opor arruntak izan, baina ziur gauza pila bat egin dituzula!

Erantzun galdera hauei, baina **gogoratu** gelan erabiltzen dugun **arkatza** eta lehenengo bi puntuak (pentsatu eta ortografia) zaindu.

Zer moduz pasa dituzu bi aste hauek? Nola egon zara? Egoera berezi honen aurrean pixkanaka lasaitzen zoazela uste duzu?

Hilabete honetan zehar ziur ohitura berriak hartu dituzula eta zure eguna antolatuta daukazula. Zein da **zure errutina**? (noiz jaikitzen zara, goizean zer egiten duzu, arratsaldean...)

"Oporretan" egon garen egun hauetan, izan al duzu **egun berezirik**? Noiz? zergatik izan zen berezia?

IDAZTEAN
PENTSATU Zer kontatu nahi dut? Nola esango dut? Hitz egokiak aukeratu
ORTOGRAFIA Hizki larria hasieran, izen-abizenak... puntuazio zeinuak...
AURKEZPENA Hizki ona, txukuna. Ondo ulertzen da? Garbi dago?



Lagunekin harremanik izan al duzu? Norekin? Zerren bidez egon zarete kontaktuan?

Egoera hau uste baino azkarrago bukatuko da, jada zailena egin dugu eta aste gutxi barru ateratzeko aukera izango dugu. Zer gustatuko litzaizuke egitea **etxetik ateratzen** zaren egun horretan?

Beste zerbait kontatu nahi didazu?